

# 1

## Euskalgintza eta feminismoa: Identitateak berreraiki, demokrazia sendotu, boteretze kolektiboa bultzatu eta subalternitate eraldatzaile unibertsalak eraikitzeko proposamen bat

**Lorea Agirre Dorronsoro**

*Kazetaria eta Jakin kultur aldizkariko zuzendaria*

*jakin@jakin.eus*

**Idurre Eskisabel Larrañaga**

**Laburpena.** Euskararen normalizazioa eta genero berdintasuna antzekotasun asko dituzten bi prozesu pertsonal, sozial eta politiko dira. Euskal hiztuna eta emakumea subordinazioan daude. Bien aurkako menperakuntza moduak berberak dira, eta, beraz, subordinazioari aurre egiteko diskurtso eta praktikak partekatzea onuragarri izan daiteke. Bi prozesuek, sozialak eta politikoak direlako, justizia sozialarekin eta demokratizazioarekin lotura estua dute. Boteretze kolektiboaren bitartez, demokrazian sakondu eta biak ala biak subalternitate eraldatzaile unibertsal bihurtzeko proposamen bat egiten da artikulu honetan.

• **Hitz gakoak:** *euskara, feminismoa, euskararen normalizazioa, genero berdintasuna, justizia soziala, demokrazia, boteretzea, subalternitate eraldatzailea.*

**Abstract.** There are many similarities between the personal, social and political processes of Basque language normalization and gender equality. Basque speakers and women both occupy subordinate roles. Since similar methods of dominance are applied to both, it may benefit them to share discourses and practices of resistance to subordination. Because both processes are social and political, they are closely linked to social justice and democratization. This article presents a proposal to attain greater democracy and turn them both into universal transforming subalternities through collective empowerment.

• **Key words:** *Basque language, feminism, Basque language normalization, gender equality, social justice, democracy, empowerment, transforming subalternity.*

Dibisa

A l'atzar agraeixo tres dons: haver nascut dona,  
de classe baixa i nació oprimida.

I el tèrbol atzur de ser tres voltes rebel.

Maria Mercè Marçal (1976) \*

Euskalgintzak eta feminismoak, harrigarriki, oraintsu arte ez dute bidean elkar topatu. Harrigarriki diogu, batetik, bi militantzia horiek gorputz berean, bihotz-buru berean, gertatzen direlako usu, eta, bestetik, menderakuntzaren aurkako bi borroka izaki, elkarrenganako antzekotasunak ugariak direlako, bai menperatuak diren moduetan, bai menperatzeak sortzen dituen gorputz subordinatu bezatuetan, eta, baita subordinazioaren aurka sortu behar den eragile eraldatzaile izaeran ere. Horregatik diogu euskaltzaletasuna eta feminismoa ahizpak direla, eta bien arteko aliantzak, bai diskurtso eta iruditerian eta bai praktikan, bide berri eta oparoak zabaldu ditzakeela sinetsita gaude. Alegia, euskaltzale garelako gara feminista, eta feminista garelako gara euskaltzale.

Feminismoaren definizio bat eman beharko bagenu, baieztatu genezake gizartearen gaineko pentsamendu kritiko eta alternatibo teoriko eta praktiko paradigmatico eta integralena dela gaur egun. Bereziki azken hamarkadetatik hona, eta bereziki ideologia eta errelatu hegemonikoak hauts bihurtu eta gero, Maialen Lujanbiok berriki adierazi bezala, "gure gizartearentzako feminismotik dator alternatiba sinesgarri bakarrenetakoa, eta ez bakarrik beste ia dena amildu denerako heldulekua" (1). Hain zuzen, feminismoaz baino feminismoez hitz egitea da egokiagoa, eta ugaritasun hori, orain arteko pentsamendu nagusietan ez bezala, feminismoak bere bertute handientzat du.

Feminismoak baditu ideia giltzarri batzuk euskalgintzara ere aplikagarri izan daitezkeenak. Hona hemen hiru: bata, 'emakumea' beharrean 'emakumeak' esaten du feminismoak, eta emakume horiek denak, denak desberdinak, izendatzen dituenean, ez-gizona izendatzen ari da, hau da, gizon hegemoniko patriarkalaren eredu bakarrean sartzen ez diren guztiak –ondo pentsatuta, nor ez–.

Emakume horiek denak, ez-gizonak, bestea da, bestea dira, alegia, arau eta eredu ez dena; eta horren harira identitateen gaineko teoria berri-tzaileena proposatzen du, identitatea deseraiki eta berriro eraiki daitezkeela aldarrikatzen duelako. Eta horixe du subordinazioaren aurkako borroka eremu nagusietako bat: nork bere burua izendatu eta berreraiki dezakeela menperatzaileak ezarritako izendapenetik –identitatetik–

**Euskaltzaletasuna eta feminismoa ahizpak direla, eta bien arteko aliantzak, bai diskurtso eta iruditerian eta bai praktikan, bide berri eta oparoak zabaldu ditzakeela sinetsita gaude.**

**Feminismoak baditu ideia giltzarri batzuk euskalgintzara ere aplikagarri izan daitezkeenak.**

**Hiru ideia horiek, emakumea araua betetzen ez duten guztien subjektu unibertsal kontsideratzea, identitatea deseraiki eta berreraikitzea eta auziaren izaera politiko eta polistikoa, hirurak ekar litezke hiztunaren eta hizkuntzaren planora.**

askatzeko bide gisa. Izan nahi dugun hori izateko aldarria, egiten dugun hori garena dioen maxima hori. Horixe bigarren ideia.

Eta hirugarren ideia giltzarria, feminismoaren lelo ezaguna: pertsonala politikoa da. Genero desberdinkeria onorioak eta are abiaburuak eremu intimoenean daudela, eta, beraz, ez dela emakume jakin baten kontua, ez eta emakumeen kontua, ez bada gizarte osoaren kontua.

Hiru ideia horiek, emakumea araua betetzen ez duten guztien subjektu unibertsal kontsideratzea, identitatea deseraiki eta berreraikitzea eta auziaren izaera politiko eta polistikoa, hirurak ekar litezke hiztunaren eta hizkuntzaren planora.

## MENPERAKUNTZA HIRUKOTZA

**I** Euskal Herriko politikagintzan, hainbat eremutan *statu quo*-aren eraldaketa bultzatzen duten mugimendu eraldatzaileek, sarri, elkarren berri gutxi izan dute, eta are, elkar zapalduz jardun izan dute askotan, zein borroka garrantzitsuagoa izan, zein presazkoagoa, zein lehenetsi beharrekoagoa. Tentsioa beti egon da eta oraindik ere badago. Eta, hala ere, hainbatetan, hainbat borroka garrantzi eta estrategia maila berera ekarri izan dira, nazio askapenarena eta langile mugimenduarena, esate baterako, zapalkuntza bikoitzaren estrategia aplikatuta, 60ko hamarkadaren bukaeran.

Garai bertsuan, 70eko hamarkadan, hainbat emakume feminista zapalkuntza hirukoitzaz hitz egiten hasi ziren, eta klaseari eta nazioari beste bat erantsi zioten: emakume izateagatiko zapalkuntza, edo gaur egungo hizkerara ekarrita sexu-genero sistemaren araberakoa. Horrela sortu zen Ipar Euskal Herrian EEBA (Euskal Emakumeak Beren Askatasunaren Alde) talde feminista, feminismoa eta abertzaletasuna uztartuko zituen lehen taldea.

Hain zuzen, Angela Davis ekintzaile beltza izango dute erreferentzien artean, eta bereziki haren *Women, Race and Class* (1981) lana, azken urteetan egin den bezala, feminismoa problematizatu eta botere eta zapalkuntza sare konplexuetan ezartzeko obra giltzarrietako bat dena. Arrazagatiko zapalkuntza aipatzen du Davisek, eta nazioagatikoa emakume abertzaleek. Gutasunaren eraikuntza kolektiboarekin zerikusia dute biek ala biek eta baita gutasun horretako eraikuntza indibidualarekin ere. Maila bereko zapalkuntza eta aldarrikapenak bilakatzen dira.

Beraz, Euskal Herriko feminismoaren ildo batek oso aspalditik du zapalkuntza hirukoitza bere egina. Egia da, harrigarriki egia, sektore

horretatik herri edo nazio gisako zapalkuntza oso gutxitan irakurri dela oraintsu arte hizkuntza edota hiztun zapalkuntza gisa. Harrigarriki diogu, hain justu, gure kasuan menderakuntzarako eremu pribilegiatuenetako bat baita hiztunaren planoa, eta horrenbestez baita erresistentzia eta eraldaketarako eremu pribilegiatua ere.

Hizkuntzaren eta hiztunaren planoa oso 'aproposa' da azpiratze mekanismoak aplikatzeko. Hizkuntza bat edo beste erabiltzeak oso ondorio desberdinak izan ditzake bai indibidualki eta bai sozialki, bai hiztunaren planoan eta baita hiztun komunitatearen planoan ere: hiztun menperatu izatetik hiztun menperatzaile izateraino, eta hiritar subordinatu izatetik hiritar hegemoniko izateraino. Hori oso modu argigarrian ikus liteke Angela Davisek berak bere biografian kontatzen duen pasarte batekin. Davis bi ahizpekin oinetako denda batera sartu da, nerabe dela. Umetatik eskola frantsesean eskolatuak izaki, frantsesez hitz egiten sartu dira saltokira. Dendako emakume zuriak muturra okertu du hiru neskak beltz ikustean, baina, frantsesez mintzo direla ohartzean, atzeritarrak direlakoan, atseginaz hartzen ditu. Alegia, Davisen azal beltza zuritu egiten da dendariaren begietara frantsesez mintzo denean. Ez ote da mekanismo bera kontrara gertatzen, hainbat lekutan, euskaldun euskal herritarraren azal zuria belztu egiten dela euskaraz mintzo denean? Hizkuntza batek menperatzaile edo menpeko bihur zaitzake.

Beste modu batera ere esan dezakegu: hizkuntza batek edo besteak gizartean leku batean edo bestean kokatzen zaitu hiztun gisa, bazterretan edo erdigunean jartzen zaitu. Eremu publikoan edo pribatuan, edo lan esparru espezifiko batzuetara kondentzen zaitu edota edonon onartzen zaitu. Hiztun gisa esan dugu, baina hizkuntzak herritar eta hiritar gisara ere eraikitzen gaitu. Herritar gisa gutasun bateko identifikazioa indartzen duelako, eta hiritar gisa gizarte bateko eskubide eta obligazio zibildun kide egiten zaituelako. Eta horrenbestez, hizkuntza bat edo beste erabiltzeak eskubidez jantzi edo eskubide gabetzen zaitu. Berdin-berdin gertatzen da sexu-generoaren desberdinkeraren aplikazioan ere. Euskal hiztun izateak edota emakume izateak eskubide kamusdun hiritar egiten zaitu, bigarren mailako, meneko, subordinatu, eta horrek eraldaketarako subjektu bihur zaitzake. Eta bihurtzen zaitu.

## IDENTITATETIK JUSTIZIA SOZIALERA

Emakume izatea edo ez-gizon izatea identitate kontu bat baino ez da izan denbora askoan, emakume eta ez-gizonen kontu partikular bat, berezkoa, feminismoak justizia sozialaren eta demokraziaren termino-

---

**Hizkuntzaren eta hiztunaren planoa oso 'aproposa' da azpiratze mekanismoak aplikatzeko. Hizkuntza bat edo beste erabiltzeak oso ondorio desberdinak izan ditzake bai indibidualki eta bai sozialki, bai hiztunaren planoan eta baita hiztun komunitatearen planoan ere: hiztun menperatu izatetik hiztun menperatzaile izateraino, eta hiritar subordinatu izatetik hiritar hegemoniko izateraino.**

**Euskal hiztun izateak edota emakume izateak eskubide kamusdun hiritar egiten zaitu, bigarren mailako, meneko, subordinatu, eta horrek eraldaketarako subjektu bihurtzake. Eta bihurtzen zaitu.**

etara ekarri duen arte. Eta hortxe dago partikular izatetik unibertsal izaterako jauziaren oinarria. Hori da bidea partzial eta partikular eta intimoa eta ez publiko eta ez politiko kontsideratzen zen auzi bat diskurtso unibertsalera ekartzeko. Horrek zer esan nahi du? Ez emakumeen desberdinkeraren arazoa ez euskararen minorizazioa ez direla arazo partikular identitario eta partzialak. Aitzitik, beste subordinazio batzuk bezalaxe, eskubide sozialen eremuan tasun definitzaileak direla, hau da, euskal hiztun izateak eta emakume izateak eskubide gutxiago izatea du ondorio, funtzio eta espazio jakinen ukazioa, politikoak eta botereari lotutakoak bereziki, eta horrenbestez, zehazki bigarren mailako herritar/hiritar izatea dakar; eta bigarren mailako herritarrak egotea gizarte osoaren arazo bat da, gizartearen beraren barne arazo bat da, demokraziaren funtzionamendu murriztaren sintoma argi bat.

Feminismoaren ekarpenetako bat da boterearen eta botere harremanen irakurketa zenbateraino zehatza egiten duen. Botere harremanez disezio oso bat egiten du, lekuan leku eta garaian garai. Bestela esanda, subordinazio egoerak identifikatzeko, botere gehiegikeriak ikusteko eta pribilegiadunak ezagutzeko leku egokienean jartzen zaitu. Eta horregatik dakar feminismoak boterearen irakurketa berri bat. Boterea ez da soilik goitik behera aplikatzen, zeharkakoa ere bada, eta gutako bakoitza izan gaitezke menperatzaile eta menperatu. Irakurketa horrekin sistema kapitalista heteropatriarkalaren ezkutuko aldarnioak agerrarazten ditu. Zertarako? Botere eta esplotazio harremanak nola birsortzen diren aztertze. Nola birsortzen da genero diskriminazioa? Non? Hori da erroten bilatu behar den erantzuna. Demagun, familia nuklearraren bitartez, sarri, emakumea dela seme-alabak beren buruaren menperakuntzan sozializatzen dituen, sistemak agindutako rola betez. Eta horrela, baieztatu liteke, desberdinkeraren erreproduktzioa emakumeek egin dezaten behartzen dituela sistemak. Galdera eremuz aldatu daiteke, eta itaundu: non birsortzen da hiztun minorizatuaren diskriminazioa? Sistemak nor behartzen du horren erreproduktzioa izan dadin?

Pribilegioak nork dituen ere argi zehaztu du feminismoak. Nork noren eskubideak zapaltzen dituen. Eta horiek berdintzera eramateko, pribilegiadunak kendu beharko dira eremu publikotik pribilegio gabeak sar daitezten. Gizon hegemonikoak kendu emakumea sartzeko, hizkuntza hegemonikoa kendu euskara sartzeko. Alegia, euskalgintzari galdera bat jartzen digu feminismoak begien aurrean: hizkuntza hegemonikodun elebakarrak interpelatu behar dira, euren pribilegioak agerian utziz? Ez al da justizia sozialekoa pribilegiaduna interpelatzea? Horre-

gatik diogu euskararen normalizazioaren auzian ere identitatetik justizia sozialaren parametroetara trantsizio bera egitea interesgarria dela.

Horrek ez du esan nahi euskararen normalizazio bidean identitatearen faktorea albora utzi behar denik; aitzitik, modu berriz asmatu beharko da, ze identitatea(k) eta taldetasuna ezinbesteko dira hegemoniaren aurrean irentsiak ez izateko. Nahiz eta identitatea sarri itsusten zaion euskal hiztunari, harrigarriki, sexu eta genero identitatea ez dira albora utziak izan daitezen eskatzen. Feminismoak identitate berri eta ez-normatiboen alde egiten du —aldiz, feminitatearen identitate tradizionala eta esentzialista arbuiatzen du—, eta, horregatik, sexu-genero identitateak indartu egin dira, eta gaurko postmodernian onartzeko prest gauden ia identitate bakar bilakatu ditugu. ‘Euskal zera’-ren identitatea berreraikitzea eta birformulatze ez-normatiboetan kokatzea bide bat izan daiteke, ez bakarria, baina bai bide bat taldetasun zabalago eta inklusiboago bat josteko. Alegia, eragile emantzipatzaile eta askatzaila den identitate subordinatu gisara definitzea ‘euskal zera’ hori. Hori egin da, esentziaz edo hautuz, baina egin da. Egin du eta diskurtsoan kokatu du euskalgintzak. Orain, kontua litzateke soilik unean-unean erabilgarri zaizkigun esentzialismoak gorde eta hizkuntza hautatu beharraren ‘aukera eder’ hori demokraziaren eta eskubide zibilen auziaren erdira ekartzea. Herri gutasunaren eraikuntzan iruditeria eta diskurtso berrituak sartzearen komenentzia azpimarratu nahi dugu. Eta diskurtso edo *framing* berri horretan iradokitzailea da oso euskara eta feminismoaren arteko aliantza zibil eta demokratikoaren ideia.

## NATURALIZAZIOA, MENPERAKUNTZA TRESNA NAGUSIA

**I** Hain zuzen, bizi gaituen kapitalismo heteropatriarkalaren xedea emakumearen auzia identitate esentzialen eremuan mantentzea da, eta baita hizkuntza minorizatuarena ere, ez daitezen eremu publiko-politikora iritsi, ez daitezen oinarrizko arazotzat hartu, ez ditzan horrek pribilegiadunak (gizon hegemonikoa eta hizkuntza hegemonikoa) menperatzaile gisa agertu. Eta, bestetik, ez dadin eraldatzea, aldatzea, deseraikitzea eta eraikitzea posible dela sinestera iritsi.

Sistema menperatzaile horren mekanismo nagusia naturalizazioa da, bai sexu-generoaren gaian eta baita hizkuntzarenean ere, bietan kalkoan aplikatzen dena. Naturalizazioak zera dio: subordinazio egoeran zaude emakume zarelako, ze berezko ezaugarriak dituzu horretarako. Hau da, naturaz, biologikoki, jaiotzez, genetikoki zara zaren bezalako,

---

**Euskal hiztun izateak eta emakume izateak eskubide gutxiago izatea du ondorio, funtzio eta espazio jakinen ukazioa eta horrenbestez, zehazki bigarren mailako herritar/hiritar izatea dakar; eta bigarren mailako herritarrak egotea gizarte osoaren arazo bat da, gizartearen beraren barne arazo bat da, demokraziaren funtzionamendu murriztaren sintoma argi bat.**

**Herri gutasunaren eraikuntzan iruditeria eta diskurtso berrituak sartzearen komenentzia azpimarratu nahi dugu. Eta diskurtso edo framing berri horretan iradokitzailea da oso euskara eta feminismoaren arteko aliantza zibil eta demokratikoaren ideia.**

eta ezaugarri horien arabera betetzen dituzun funtzioek botere sarean menpeko eta bazterreko posizioan jartzen zaituzte. Ezin zara aldatu. Esentzia kontua da, emakumetasuna, feminitatea.

Berdin euskaldun bezala: subordinazio egoeran zaude euskaldun zarelako; izan ere, euskarak berez dituen ezaugarriek horretara eramaten zaituzte, eta ezaugarri horien arabera betetzen dituzun funtzioek botere sarean bazterrean kokatzera eramaten zaituzte. Eta ze ezaugarri dira, bada, menderakuntza berez dakartenak?

Emakumea zer da? Ahula, indarrrik gabea, erdi heldua, sentsiblea, erraz hunkitzen dena, emozionala, biraorik egin ezin duena, basa, naturari lotua, ama izateko jaioa, zaintzari genetikoki lotua, indarke-riarako joerarik gabea, maitagarria, ez-razionala, pentsamendua egituratzeko ez-gauza, publikoan hitz egiteko ez-gaia, botere publikoan jarduteko bokaziorik gabea, txokokoa, etxekoa, itzalean egotekoa.

Ezaugarri berak ez al zaizkio egotzi euskarari? Eta, are, gaur egun oraindik ere ez al zaizkio egotzen? Eta, ze espektatiba eta aurreiritzi ditugu emakumearen gainean eta euskararen gainean? Eta zeintzuk gizonen gainean eta gaztelera eta frantsesaren gainean? Eta zer antizipatzen diogu euskarari? Euskal hiztunari? Eta zer ez?

## **EUSKARA ETA GENEROA GURUTZATZEN DIRENEAN**

Generoak eta hizkuntzak elkar gurutzatzen dute bereziki bi hizkuntza baino gehiago dauden gizarteetan, eta hizkuntza horietako bat minorizatua denean. Lotura konplexua eta estua da emakumearen eta hizkuntza minorizatuaren artean. Emakumea eta euskara gurutzatzen direnean prozesu segregatzaile oso bistako bat gertatzen da. Euskararen hautua, gizona izan edo emakumezko izan, desberdina dela ikusten hasiak gara. Eta hautu horretan generoarekin lotutako desberdinkeria eta desorekak eragina dute hizkuntzan. Baita ingurune sozio-linguistikoak ere, baina baita prestigio eta pribilegioen banaketak ere. Genero aldetik prestigio gabea den herritarrak hizkuntza pribilegiotua aukeratu ohi du eremu publikora irteteko, esate batera. Ondorio hori, jada, bistaratu zen Teresa del Vallek zuzendutako ikerketa taldeak osatu zuen *Mujer vasca* liburuan (2).

Horrela jasotzen du, baita ere, Elhuyarren ‘Nola txertatu genero ikuspegia hizkuntza politikan?’ ikerketak (3), hainbat adituk eta hainbat erakundek egindako ikerketei erreferentzia eginez. Esate baterako, emakumeak dira euskara ikasteko edo hobetzeko ahalegin nabarmena-

goa egiten dutenak. Lan munduan genero segregazioa izaten da, eta horrekin batera hizkuntzaren 'zonifikazio' bat gertatzen da: emakumeak zerbitzuen sektorean nagusi dira, eta hor euskararen eskakizuna beste sektore batzuetan baino handiagoa da; beraz, emakume batek lan munduan aukera gehiago izan ditzan euskara ezagutzeko presio handiagoa izango du. Beste adibide bat: oraindik ere, emakumea da transmisioaren giltzarri, ama —eta andereñoa, ama soziala— den heinean, alegia, bere kargu dagoela nagusiki seme-alaben hezkuntza eta ardura, eta horregatik amaren hizkuntza identitateak oraindik ere ia beti aitaranak baino pisu handiagoa du. Alegia, euskararen ardura handiagoa dute oro har ama diren emakume euskaldunek aita diren gizon euskaldunek baino. Hori nabarmen gertatzen da koadriletan gazteek duten hizkuntza joera amarenaren oso antzekoa izan ohi delako. Areago, nerabearen sexuak hizkuntza hautuan ere eragina du. Neska koadrilak egonkorragoak eta itxiagoak dira, emakumea zintzoago eta araei esanekoago izateko hezten delako, eta horrenbestez ikusi da hizkuntza aldaketa edo ordezkapena gutxiagotan gertatzen dela. Mutil koadriletan, aldiz, sozializazioa eta sistemaren esijentzia malguagoa da eta, are, araua puskatzeko aizua sentitzen direlako, harreman gehiago eta irekiagoak dituzte eta hizkuntza aldaketa ere gehiagotan gertatzen da. Beraz, sozializazio moduan eragina du sexuak eta generoak, eta berdin, sozializazio horren hizkuntzan ere.

Hirugarren kasuak dio haur eta nerabezaroan, neskek aisia euskaldunetan gehiago hartzen dutela parte, euskal dantzetan, nabarmena da Hegoaldean bederen, eta horrekin esan liteke nesken euskararen erabilera gehiago sendotzen dela. Mutilak kirol zaleago dira, futbol zaleago bereziki, eta mundu hori, bai gazteen aisia mailan eta bai goi mailako kirol eta ikuskizun eta negozio gisa, euskaratik urrun dago oso. Beraz, esan dezakegu, neskak-dantza-euskara hirukoa lotuta dagoela, eta mutilak-futbola-gaztelera ere bai? Bada bi joera horien artean ere azpimarragarria den ñabardura bat: neskek sozialki prestigiorik ez duen ekimen bat egiten dute (dantza), agian eurretaz espero dena edo antzicipatzen zaiena ez delako prestigiodunak izan behar dutela, eta, mutilek, aitzitik, praktika prestigiotsuena aukeratzen dute edo aukeraratzen zaie. Lehenago egin dugun galdera hona ekar liteke: genero eta hizkuntza diskriminazioa non birsortzen da, orduan?

## INTERSEKZIONALITATE BAT EUSKARARENTZAKO

Feminismoak intersekzionalitatea edo eremu artekotasuna ekarpen garrantzitsu du emakumeen identitateen konplexutasuna ikusarazte-

---

**Emakumeak zerbitzuen sektorean nagusi dira, eta hor euskararen eskakizuna beste sektore batzuetan baino handiagoa da; beraz, emakume batek lan munduan aukera gehiago izan ditzan euskara ezagutzeko presio handiagoa izango du.**



**Hizkuntza bi gauza da begirada soziologiko batetik. Hizkuntza elkarbizitza tresna da, eta, hizkuntza boterea da.**

**Hizkuntzak taldea eskatzen du: hiztunak beste hiztun bat eskatzen du hiztun izango bada**

**Hau da, euskaraz hitz egiteko eskubidea egon dadin inork ezagutzeko obligazioa izan behar duela.**

ko. Razialitatea, migrazioa, pobrezia, joera eta identitate sexuala, indigenismoa, postkolonialismoa... Feminismoa aberastu eta osotu duten bide paralelo eta konpartituak dira, emakume izateko ereduak denak. Aniztasuna, hori du feminismoak bere zutabe garrantzitsueneko bat.

Hizkuntzaren interseksionalitatea ez da hainbeste landu izan, baina ari dira han eta hemen bai feministak eta bai hizkuntzaren normalizazioan dihardutenak begirada horretara bideratzen. Hizkuntza ez-hegemoniko minorizatuak hiztun minorizatuak sortzen ditu, eta, horrenbestez, hiritar minorizatuak, eta hiritar minorizatu horien hizkuntza hautua genero derberdinkeriak zeharkatzen du eta horrek guztiak interseksionalitate berri bat zabaltzen dio feminismoari.

Gainera, patriarkatua eta kapitalismoa ulertzeko, hegemonia linguistikoa ulertzea beste erremediorik ez dago. Hizkuntza artefaktu konplexua da eta bere baitan biltzen du banako gisa eta kolektibo gisa garen hori guztia, eta are gu geu eta geure ingurunea eta ingurune horretan bizitzeko sortu dugun guztia ere, kultura alegia, hizkuntzatik eta hizkuntzaren gain-azpitik sortua baita. Alessandro Duranti antropologoak dioen legez, hizkuntza munduarekin harremanetan jartzeko tresna prototipikoa da, eta hitz egitea bitartekaritza ekintza prototipikoa. Izan ere, hizkuntza, usu esaten denaren kontrara, ez da nagusiki komunikazio tresna huts bat, horrela kontsideratzeko tentazio inozoa egoten den arren. Hizkuntza bakarra denon ahotan dagoenean ere, hau da, gatazka linguistikorik gabeko egoera ideal batean ere, ez da komunikazio tresna huts bat. Hizkuntza bat baino gehiago dagoen lekuan zer esanik ez. Intentsitate maila gorabehera, beti dago gatazka, edo, zehatzago esan, hizkuntza baten menperakuntza eta bestearen hegemonia.

Hizkuntza bi gauza da begirada soziologiko batetik. Hizkuntza elkarbizitza tresna da, eta, hizkuntza boterea da. Elkarbizitza bera da. Hizkuntza hautua ez da inoiz bakarka egiten —ez bada erresistentziaz edo kontzientziaz edo jarrera eraldatzaileaz— eta beraz hizkuntzaren aurrerabidea ez da banakoaren eremuan jokatzeko. Beti behar du talde bat, jende gehiago, komunitate bat. Zergatik? Hizkuntza interaktuala delako. Erljioa edo ideologia ez bezala —etxean bakarka gurtu edo praktika ditzakezu—, hizkuntzak taldea eskatzen du: hiztunak beste hiztun bat eskatzen du hiztun izango bada. Eta hor jartzen dira jokoan komunitate horrek barnebiltzen dituen eskubide eta obligazio zibil-politikoak. Hau da, euskaraz hitz egiteko eskubidea egon dadin inork ezagutzeko obligazioa izan behar duela.

Izan ere, hizkuntza bada beste gauza bat ere: boterea. Hizkuntza menperakuntza tresna indartsu bat da, ez beste hizkuntza bateko hiztunari inposatzen zaiolako bakarrik, eta hiztun minorizatuak sortzen dituelako bakarrik, eta hiztun horiek herritar eta hiritar gisa ere subordinatu egiten dituelako. Hizkuntza menekoak sortzeko makina bat izan da leku askotan, eta izaten jarraitzen du. Hizkuntza bakoitzak bere kapitala du eta kapital hori lotuta doa beti hiztun komunitate horrek duen botere politiko, ekonomiko, armamentistiko, kultural eta sinbolikoarekin. Eta botere politiko, ekonomiko, armamentistiko, kultural eta sinboliko horrek aurrera egin dezan hizkuntza bakarraren hegemonia ezinbesteko da gure mendebalde honetan bederen. Horregatik diogu patriarkatua eta kapitalismoa ulertzeko, hegemonia linguistikoa ulertzea beste erremediorik ez dagoela.

Pierre Bourdieuk eguneroko hizkuntza praktikak borroka eremu direla dio. Hizkuntza bakarraren barne borrokez ari da, hau da, nork hitz egiten duen eta nondik hitz egiten den balio jakin bat izango duela esandako horrek, baita esandakoa berdina denean ere. Sexu-generora aplikatuta, ongi demostratzen da egunero, emakume baten diskurtsoa, oraindik ere eta hemen bertan, ikusezinago dela gizonezko batena baino, esaten denaren pertinentziaz harago, eta, are, baita esaten dena gauza bera denean ere. Hizkuntza minorizatuaren planora ekartzen badugu, oraindik ere eta hemen bertan, ongi demostratzen da egunero, euskaraz esan edo erdaretan esan, ez dela berdina: euskarazkoa askoz ikusezinago geratzen dela esandakoak pertinentzia eta garrantzia handiena izanda ere. Eta hirugarren eszena bat ere irudika dezagun: hiztun minorizatu emakumea denean ikusezintasuna bikoiztu egiten da. Alegia, hizkuntzak, boterea eta kapitalak, eta, generoa harreman konplexu batean lotzen dira eguneroko praktika guztietan indarkeria sinbolikozko egitura barneratu bat osatzeraino.

## **ASKAPEN PROZESUA: JAKIN , JABETU, AHALDUNDU, BOTERETU**

**I** Praktika eta diskurtso injustu eta ez-berdinzale horien aurrean, feminismoak subordinaziotik eragile edo agente eraldatzaile izateko lau urrats markatzen ditu: jakin, jabetu, ahaldundu eta boteretu. Jakin, emakumea —edota euskal hiztuna— menpeko egoeran dagoela; jabetu zu zarela menpeko egoeran dagoen emakume hori —edo hiztun hori—, edo zure ondoan dagoena, eta zure gorputzean bizi duzula sentitzea, eta zurekiko eguneroko menperakuntza praktika horiei izena jartzea, eta non eta noiz eta nola gertatzen diren kontzientzia hartzea; ahaldun-

---

**Euskaraz esan edo erdaretan esan, ez dela berdina: euskarazkoa askoz ikusezinago geratzen dela esandakoak pertinentzia eta garrantzia handiena izanda ere.**

---

***Euskal hiztunak  
boteretzea behar  
du, euskarak  
boterea behar du,  
nola emakumeak.  
Horregatik  
hiztun eta  
emakume gisa  
boteretzeak  
herritar gisa  
boteretzea dakar  
gizarte justuago  
baten bilaketan.***

du, tresna teoriko-praktikoak landuz menderakuntza egoerei aurre egin ahal izateko. Eta boteretzeak, kolektibo edota gizarte gisa boterearen kudeaketa eta botere harreman justuago eta berdinzaleagoen posibilitatea eta beharra dakar berarekin. Kontzientziazioaren ohiko definiziotik harago doa. Parte hartze politiko formala aberastu eta gainditu egiten du, eta eskubide urraketak eta testuinguru politiko eta kultural orokorra aztertu, eta norbanakoarengan eta taldearengan eraldaketan zerikusia duten eta aldaketa bera oztopatzen duten prozesu psikologiko, politiko, kognitibo eta ekonomikoak hartzen ditu aintzat. Legeak aldatzetik harago doa boteretzea. Proposamen politiko eraldatzaile integral bat dakar berarekin.

Eta, baita ere, garai berri hauetarako gutasuna asmatzeko bide eta subjektu eraldatzaile izateko, estrategia eta aliantza egokia dela uste dugu emakume eta euskaldun kategoriak lotzea. Hirugarren bat ere bai: klasea, edota bestela esanda, prekarizazioaren edo kapitalismoaren kontrako borroka, hain zuzen kapitalismoa sexu-genero berdintasunaren bidean galga baino ez baita, eta beste horrenbeste hizkuntza minorizatuen berdintasunaren bidean ere.

Euskal hiztunak boteretzea behar du, euskarak boterea behar du, nola emakumeak. Horregatik hiztun eta emakume gisa boteretzeak herritar gisa boteretzea dakar gizarte justuago baten bilaketan. Eta horregatik euskaltzale garelako gara feminista, eta, feminista garelako gara euskaltzale.

Proposamen partziala da. Bai. Baina, gaur egun bada proposamen totalitarismoan erori gabe? Partziala da, baina osagarria, eta subjektu politiko izateko beste modu bat proposatzen du, aliantzen eta lankidetzaren bitartez aurrera eramatekoa. Eta are, partziala da, baina unibertsal izateko bokazioa du. Feminismoaren proposamena berdinzalea eta inklusiboa da, eta subjektu politikotzat emakumea, alegia, ez-gizona, hartzen duenean diskurtso eta praktika orotzaile bat egiten ari da. Emakumea da pertsona izateko modua. Jule Goikoetxearen hitzetan, “emakumeok ez gara herriaren parte, gu gara herria” (4). Esan dezakegu, baita ere, euskalduna izatea dela pertsona, herritar izateko modua, ze hizkuntza txikiaren defentsa hizkuntza guztien defentsa da, beraz, hiztun guztiena, herritar guztiena. Diskurtso unibertsalizatzailea da, feminismoarentzat eta euskalgintzarentzat jokaleku berri baten marko proposatzen duena. Baina horretarako euskarak ezin du soilik hizkuntza bat eskaini, ezta komunitate itxi bat ere, gauza gehiago eskaini behar du: justizia sozialaren aldeko borroka guztien hizkuntza izatea;

gainontzeko borroka emantzipatzaileak euskararen markora ekartzea; euskal hiztuna eta hizkuntza subalternoko emantzipatzailea diren heinean subordinatu guztien hizkuntza —iruditeria kolektiboan eta praktika errealean— bilakatzea; euskara ematea, euskarara ekartzea, euskaratik pasaraztea. Euskara izan dadila, gutxien-gutxienik, tres voltes rebel. ●

## **OHARRAK**

\* *Dibisa*

*Menturari hiru dohain zor dizkiot: emazte sortu izana, klase sozial apalekoa eta herrialde zapaldukoa.*

*Eta hiru bider errebelde izateko urdin uherra.*

Maria Mercè Marçal (1976)

(*Itxaro Bordak itzulia*, Susa 2015)

(1) Maialen Lujanbio: *Sinadura*, Euskadi Irratia, 2016-04-06.

(2) Teresa del Valle: *Mujer vasca. Imagen y realidad*, Anthropos, 1985.

(3) Joana Arakistain, Goizargi Oruesagasti eta Aizpea Otaegi: 'Nola txertatu genero-ikuspegia hizkuntza-politikan', *Bat* 92-93, 2014, 67-86.

(4) Maria Colera: 'Jule Goikoetxeari: "Emakumeok ez gara herriaren parte, gu gara herria"', *Elearazi*, 2015-03-08

(<http://elearazi.eus/2015/03/08/emakumeok-ez-gara-herriaren-parte-gu-gara-herria-jule-goikoetxeari-elkarrizketa/>).

---

**Esan dezakegu,  
baita ere,  
euskalduna  
izatea dela  
pertsonek,  
herritar izateko  
modua, ze  
hizkuntza  
txikiaren  
defentsa  
hizkuntza guztien  
defentsa da,  
beraz, hiztun  
guztiena, herritar  
guztiena.**